

Irakurzaletasuna bultzatzeko ekimena jarri du abian Topaguneak

DONOSTIA. DV. Irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz, herenegun hasi eta ekainaren 23a arte luzatuko den Irakurri, gozatu eta oparitu egitasmoa jarri du abian Topagunea Euskara Elkarteek Federazioak Euskal Herriko hamalau herritan, tokian tokiko euskara elkarteekin, udal liburutegiekin eta liburudendekin lankidetzan. Gipuzkoan, Azkoitian, Usurbilen, Elgetan, Bergaran, Urretxun eta Zumarragak gauzatuko da, hurrenez hurren Maxixatzen, Noaia, Goibeko, Jardun eta Zintzo Mintxo euskara elkarteekin eskutik.

Egitasmoaren funtzionamendua sinplea da. Ehun liburu izango dituzte aukeran parte-hartzaileek, horietako 90 -herri guztietan berdina- Patxi Zubizarreta idazleak hautatuak, eta beste 10 herrian aukeratuak. Egitasmoan parte hartu nahi dutenek liburu bat aukeratu, maileguan hartu eta, bukatutuan, fitxatxo bat bete beharko dute liburuaren inguruko iritziarekin. Fitxa betetakoan, deskontu txartel bat jasoko dute eta, txartel horrekin, egitasmoan parte hartzen duten liburu dendetan %25eko deskontua egingo zaie, lagun bati oparitu diezaioten. Euskara Elkarteak arduratuko oparia jasoko duenari liburuak bidaltzeaz.

Euskaraz irakurtzearen alde atsegina azpimarratu nahi da ekimenaren bitartez eta, aldi berean, liburutegien erabilera bultzatu eta euskarazko liburugintza bultzatu. Egitasmoak web gune propioa ere badu - www.topagunea.org/irakurri - eta bertan aurkituko ditu irakurleak liburuak buruzko iruzkinak eta hainbat informazio osagarri. Iritzi emateko aukera ere izango